


NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

GURE AMA LURRA

OTSAGI, AUÑAMENDIKO LOREA (I)



Otsagi Muskildatik.

OTSAGI, erri zoragarri bat dala ezin degu ukatu. Ba du landarra ta alaitasuna. Askotan etorri naiz oneraño, zerbait deitzen nindualako. Otsagi'ko nortasun berezia ez du gauza batek egiten, bizpaurik batean baizik; mugurak, irriaren alaitasunak, Muskildak, Dantziarik, euskal kutsuak eta gizon bereziak.

Nunaitik urbidu ezker, mendi buru galantak ikusi bear: Abodi, Osate ta ohri (2.026 m.). Mendi oiek ematen diote ikaragarriko landarra. Bi ibai ditu, Anduñ ta Zatoña, Saraitu ibai sortzeko erriko beko Aldean Batuzten diranak. Anduñ Otsagi erditik dijoa ta uraren ematen dio egitazko alaitasuna.

Inguuetako mendietan, lurre toki ikusgarriak daude. Gauri batean 80.000 buru zeuden.

Sarrean arriko gurutze bat dago grazia andia ematen diona Otsagiri. Erria bera, Muskilda mendiarren magalean da gozarria, aguteran, ibalario bi alderditik zabaltzen dala. Etxeak, tellatua gorri iluna dute, ormak txuriak ta erria beltza. Onto pilla mendipean dirudi.

Amaita kale estu ditun erria; zola, erri xeekin apainduta, toki gutxiatan bezela.

Bizpauri auzoak osotzen dute erria; Irigoien, Iribarren, Urrutia (ibaiko beste aldeak), Txanetxe (elizararen arteko aldeak), Labaria erdian. Emparantzia eder bat dago ibalari

ren beste aldean eta ondoan eskolaik.

Eliza, gaineko aldean, galanta, erria zehitzen ba lego bezela, bere dorre eendokin ta tellatua zurezkoa. Barrera, ederra dauka ta aldare nagusia, San Juan Ebanjelista, onenetakoa, Miguel Espinaiek 1592 garren urtean egitia. Bere lana amaitzen Juan Beauvais'ek lagundu zion. Ba daude beste bi aldare, Santiago ta Santa Katalina, erretzan, onak. Izarier bi aldiak ere Migel Espinaiek dira.

Antziniako garaletan, goriak ikusia dugu erri au. 1794 garren urteko gudan erre zuten dana, zortzi etxe ta eliza ezik.

Erri au, 765 metro itsasotik gora datukagu ta gaur 1190 bizilagun ditu. Ereiteko patata, abegorria ta basoak dira bere aberastasuna egokiak. Gasteak batez ere, basoon lana asko egiten dute. Artaldekin ibiltzea, gero ta gutxiago atsegin zaie. Sorosak eta artzal bordak ez dira eririk agiri; Abodi'ko bide ondoan Zatoña lurretan daude.

Dendariak lana asko egiten ari dira arrotzekin. Orihi'ko mugatik bide berri bat iruki dute ta udaren berebiki asko gelditzen dira.

Eliza atzetik, mendi bide bat gorario dijoa ta bi kilo-

metrorra Muskildako baseliza ederra arkitzen degu, 1.070 metro goien, Nafarroan ederenetakoa. Euskeraz Ipiñia dago iragarria, «Muskildako loida». Lendabizi, ermitaioen etxea arkitzen da ta onen azpitik bidea elizaraño joateko. Sarrera erromanikoa du, barranean iru abe borbiliak alde bakoitzean ta saipala erromaniko gotiko garaikoa; Amabirgiña, eserita, bere aurrea belsunen dauka ta gotikoa ta aldare nagusia barroko. Ba daude an zaramikazko lore ontziak oso politak. Ezin degu aztu, aldare sarreko burni atea, gotikoa oso polita. Eliza, Santxo Azkarrek egitia omen da.

Emenbete ikusi nituen, 1971 garren urtean, agorraren zortzian, Amabirgiñaren egunean dantza arrigarriak. Elizatxo onek aspalditik bere dantzariak ditu ta eliza onen buru alkatea ta erriko gizonak dira. Agorraren zortzian erriko jaiak ospatzen dituzte ta meza nagusia Muskilda'n izaten da. Goizetik, dantzariak agintarian biltz dijozte. Dantzatzu gorario egiten dira ta aldapa ez da nolamankoa. Meza aurretik dantza saioa egiten dute; «Emperadorea» makillekin guda kutsukoa, «Kaxutxua», «Modorro» makillekin jura joaz, «Pañuño dantza» ta «Gora Muskilda'ko amabirgiña» esanaz.

Dantzarien zuzendaria, BOBO izeneko dute. Onek, ziz-

gor bat darama eskuan eta batzuetan buruan bi erpeligiko zatar bat jartzen du. Emengo dantzak lana aundikoak dira, Azkenean dantzariak lertuta egertzen zaizkigu.

Gero Meza dute. Ondorean errian berriz dantzak eta agintariak beren etxetara laguntzen dituzte.

Berak' diote, Nabas de Tolosa'ko burruka ondorean, zorriak beren erregeari dantzatzu, opa zizkotela.

La 1666 garren urteko paperetan agertzen zaizkigu Amabirgiñaren dantzari euek ta gaur arte irau du. Antziniako garaikoa dira, ziur esko kristau garaieraren aurretik datoztenak. Mirari bat da, nola irau duten gaur arte, bertako eroliarik ez izan arren. Bete kanpotik ekarri oi dituzte ereseriak. Bertan ez dute txistularik kein ere ezagutu.

Beren dantza euek ez diete lfori erakatsi nai. Norbait dantza bat erakatsi zuelako, urte eskotan, errian ez omen zioten arpegira begiratu. Aldi ontan gertatu zitzairen polita. Ezerrez ez nekila, est nintzan dantzen izenak galdetza ta baita erantzuna txarrak artzen. Ba zeuden beste gizonetako ondoan begira ta aietako batek esan zidan, etztailea dantzariari atsegin ezer galdetza. Nor ziran galdetu nion ta Euskalerriko dantzari taldeen zuzendaria ospetsuak izaki; zinea, magnetofono ta argazkidekin, dantzen berriak jasotzera etorrikerik... ta Otsagi'ko dantzariak ez jakifteen zeuden.

Azaroaren 8'an, aspaldiko garaletan, inguruetako batleriak gizaseme asko zetozen, baita Baxanabarra ta Xiberotik. Larrau'ko artzaiak esko etortzen omen ziran ta gero etxetan bazkaltzen gelditzen ta Borna tokian azkenean dantzatzen. Arrazotekin, Otsagi'k, Xiberoko Ateratzekin anaitu da ta orain ialetan egun bereki batean omeruntz datoz.

Euskal nortasun andia zuen Otsagi'k len, oraindik naiz asko galdu nabaritzen dana. Dantza eta beren doñu bereki oiek nekioa diote. Erri gutxi izango dira gure mendi batzuetan einbeste dantza ta doñu jatorrak dituztenak.

Orain luzeago urte erabat euskaldun etsa gonen. Irujietan erremena gutxi zizitan, geiego iparraldeko Euskalerririkin. Urruti gelditzen zan. Bideak txarrak eta bi-



Muskilda'ko dantzariak.

zitzeko gauzak bertan egin bear.

Izan' ditu bere euskerazko ideziari ospetsuak eta ez nolamankoa.

Luis Luziano Bonapartek euki zuen laguntzarik bat Saraitutara, Juan Marko Juanko, 1777 garren urtean ekalaren 18'an jaioa, Anjel Juanko ta Maria Angela Eseberri'n semea.

Garralda'tar sendiak ere eman ditu ugari. Ziriako Garralda, Otsagiarra 1853 urtean abuztuaren 8'an jaioa, «Victoria Argon»ekin ezkondua, albaiterua. Onen ipui bat, 1923 garren urtean idatzia, Apat Etxebarnek argitaratu du DIARIO DE NAVARRA egunkarian.

Onen semea, Federico, aita bezela albaiterua ta Otsagiarra. 1881 garren urtean uztailearen 18'an jaioa, Rosa Goiena Krutzagarekin ezkondua. Euskal Eneale jandarian 1915-1925 bitartean argitaratuak daude bere lanak. Saraitu'ko gaiak ta euskara erabilzen ditu.

Osaki bat ere arkitu zuen ta euskeraz jarri zion izena, «Garitsaizalea». Ardiele buruz egitia, ba du beste lan bat ere. Berea da esaldia,

«Aurrendako dostalza da osasuna bilatzea».

Oso atsegin ziztaion euskeraz mintzatzea ta kein erriko andre bateri galdetu omen zion: «Zer egiten duzu?» ta «Arika, Arika», erantzuna eman. 1923 garren urtean, Jose Migel etnologo jakintsuari, erri ontan bere lanak egiten lagundu zion eta urte ontan biltzetan zitu onek lau dolmen Abodi mendian. 1929 garren urtean izan.

Bere anala Tiburtzio Garralda, 1880 garren otsailaren 19'an jaioa. ORKOIEN'go erretora. 1918 garren urtean Euskal Eneale eldizkarian argitaratu du lan bat. Euskeraz egiten zizitan noiz beinika idatzialak.

Federiko'en elarguna saietu zan bere seme euskerazikasal zezatan. Ziriako seme zarrenak, Irujietako sendagile ospetsua danak daki bekarrik.

Resurrezcion Azkuek ba ditu bizpauri gauza emen bildiak; «Kristi on Batek», Fernando Rekalde ta Franziska Krutzagak emana; «Vinkoak dituzela Egun On» Simona Ibañezek ta «Ailergaitxo joko» (Urrengan jarrailtuko zaio) LATXAGA

EUSKALHERRIAN BARRA

«Eclair» Frantziko Egunkaria eta gu

«Eclair» izeneko eguneroko frantsesak eguneroko euskeraz idetzitako idazlan bat argitaratzen du Gezkan Lantziak izenpetua. Idazlan hauetan Euskal Herriari dagozkion gal interesgarriak azaltzen dira. Orain bi hilabete badu «Nafar Hizkuntzan Orria» izenburuztat zaukan izkribu bat agertu zela. Ez da esateko beharrik gure «Euskal Orrialde» honi eskelidua zaila. Orduan sei urtebete betetzen ziran gure orrialde hau sortu zenetik, eta laudorioak eta goresmenak Getzan Lantziarik Orri hontan lan egiten dugunentzat bidaltzen zitakigu. Guk ere berari beste alibesteoko zorion eta agurrek igorritzen dizkigu euskararen aldeko lan inistimagarriak «Eclair» periodikuan egiten ari delakoz. Agur Lantziari biotzez!

«Manex Etxamendi bertsularia» liburu berria

«Auspoa» delako Euskal Editoriak urtean amabi liburu argitara ematen ditu gehienak bertsolarien bizi, bertso eta gertaerak gaia arturik azaltzen direnak. «Auspoa» beraz Euskal Herriko bertsolari liburu bilduma da.

Orain gure seigarren Merindadeko Esterenzubioko herrian sortu zen Manex Etxamendi bertsolari famatuaren liburu atara berr da. Mane Etxamendi 1873 urtean sortu zan Xaldainia izeneko etxean eta 1960 ean hil.

Aita Pierres Laffitte Bayonako kalongoa izan de Nafarroko bertsolari honen biziari prastatu eta bere bertsorik ezagutuenak liburu hontan bildu dituen.

Etxamendiaren abotsa argia zen eta jenden aurretik kantatu beharreen bere bertsorik izkribitzen zizitan. Liburu honek meretz du erostea. Bertso zaleek badute non aurkitu bertsu eder eta mamitsuak.

Ipar Ameriketako Euskaldunak

«Zeruko Argia» euskal astekarlan irakurri dudanez Ipar Amerikako Sartaldean bizi diren euskaldunak 50.000 mila inguru dira. Gehienak Idaho, Nevada eta Kalifornian bizi dira. Beste mila batzuk ere badira Oregon, Colorado, Texas eta Mexiko Herrian bizi direnak.

Idahoko Estatuan ehundik ia ia ehun bizkaitarrak dira; Nevada eta Kalifornian berriz Gure Nafarroatik joanak (de ia Frantzese aldekotik dela Españiarren Iparetik aldekotik).

Idagoko Estatuan bi euskal irati dira. Dattorren urtean bi ikastola irakitzekoan daude; bat Sann Francisco hirian eta bestea Idahoko Hirian den Boisean. Esan behar du boiseko Hiriak 80.000 pertsonea dituela eta hauengun bost mila euskaldunak direla.

Udara hontan berean handik euskaldun moitzo zintzo bat gure Euskal Herria etorri berri da euskera ongi ikastera. Gure «ongi etorri» biotzkorra ematen diotegu.

Euskal disko berria

«Euskaros» delako taldeak euskal disko bat egin berri ditu. Donostiako «Herri Gogoa» deritazan Etxeala nda atara duena Donostiako «Herri Gogoa» deritazan Etxeala nda atara ki Boobide jaunak disko hau zuzendu du. Lau kantu grabatuak dira: «Dena polita udaran», «Edurne», «Zure begiak» eta «Maita min» izenekoa.

Eskatzeotan: Iñaki Boobide-Ferreries-I-Donostia.

Euskera munduko Unibersidadetan

Euskal Herriko hizkuntzak, gure euskerak, munduko hizkuntzalariei eta iaktinsuei bere ezagutzeko eta ondo ikas eta aztertzeko kezak eta lanak eman ditzkie beti zergatik gure mintzaera mundu hontan diran hizkuntzarik zaharrenekoetatik bat da. Honengatik gure Euskal Herria Maisuak maiz etortzen dira bertan euskera ongi ikasteko. Hontaz gainera euskera ain antzineko hizkera izanik bera aztertzen eta ikasten Linguistikaren zenbait bideak errazki biltu ditezke eta haren atek idikitzeko giltzak bide batez aurkitu.

Gaur egunekoetan euskera estudiatzen eta irakasten den Unibersidadeen izenak hauek dira «Agur» agerkarian leitu dudanez: Oxford (Inglaterran), Upsala ta Lund (Suezian), Oslo (Noruegia), Berlin, Magdebourg, Munich eta Hamburg (Alemanian), Tokio (Japonen), Leyde (Holanadan), Tbilisi (Rusian), Bordele eta Toulouse (Frantzian), Columbia, Filadelfia, Idaho eta Nevada (Ipar Amerikan).

Munduko ikastetxe Nagusien izen zerrenda ederra beman.

Españiako zenbait Unibersidadetan ere euskera estudiatzen da: Nik dakidanez gure Irujietako eta ondo ikas (Deustokoen) eta ez nago ziur lehengo urtean Salamankako Ikastetxe Nagusian izaten zan «Laramendi» izeneko euskera irakasteko katedra oraindik «Bizitzen bada hala ez». Asi zanean Luis Mitekena jaunaren ardurapean zagon.

Uste dut Españiako Unibersidadeek oraindik ez daukatala euskerak meretz eta behar dituen arrera eta btlrapena.

IKUSLE

EUSKALHERRIAREN AUZO URBILAK

Egunkari hontan berean mintzatu izan naiz, erdaraz, Rioja'ri buruz agertu den liburu aipagarri batez; «La Rioja desde sus albores». Liburu hontan berri aunitz irakur dezakegu probintzia hortako oñiarri edo egiturari buruz. Pixka bat kurritu dutenek ongi dakite, eskualde hortan agertzen dirala euskarazko herri izen eta deituraz askoz gure Ertziarra zolan baino gero, baldinba.

Hor ditugu ZECHARAY, Cihuri, Herrameluri, Oñauri, Sajazarra, Zalaya, Urdaita, Zaldierna eta halako beste dozenaka ere. Bestalde badakigu Nafarroa-erresumako egiten zela probintzia hori Erdiaroan, GARZIA de NAJERA gure erregea, hiri hortako semea izan zen, eta horko Santa Maria la Real Eliza zoragarriaren fundatzailea.

Monasterio hortan dagozi Nafarroako Bizantia eta Estefania Erreginen hobi ederrak, hala nola aipatu errege harena eta bi Bizantio konkondeak ere. Ezta dudarik beraz, Bizantia eta Nafarroarekin luze loturik egon dela Rioja eta euskera mintzatu izan dela aspaldiko mendeetan, lurralde anal hortan.

ANGUANO historia-egile riojanoak dion bezala bere liburu ezagun batean, Nº 5 de ARIZTA (edo ARIZETA) Haro ondoan dagoen Monasterio zaharra aipatzen duenean, (oral Nº 1 de la Estrella deusua).

BIARNO ETA EUSKALHERRIA

Iparaldeko gure anaietaz, biarnesak arrotzak direla (gaskoinak deitua) badakigu; baina «kasiak diran euskaldunak eta bereziki ziberotarrak, lehenago euskaldun izan dirala BIARNO ere, badakite. Aski da horko dantza batzuen ikustea, mutxioak eta godale-dantza bezalakoak diranak; bai eta horko herri eta toki izen aunitz. Azkenik aipatu ere behar da, Nafarroako Erresumaren errege berak izan zituztela biarnesek eta Ego-Nafarro hau erdikatuia izan zelarik XVI-gin mendearen gure erregeek igeslekua Paben arkitu zutela, beren etxea eta egoitza zen bezala.

Arrazoin gutxi horienagatik, atseginekin ikusi dugu HERRIA astekarlan Soeigle idazleak biarnesen eta euskaldunen arteko adiskidantza sustatzen eta laudatzen duela erranez:

«Biarnesak eta euskaldunak ari gitezake kasailan, baina ez aharran (aserrera); mokoka, bainan ez jauzika (auzika). Ezgira bakarririk auzo; mendi gune beraren seme, ahaideak gitezake. Gure arteko eztabaidak, Herri laugarrena errege onak ororentzat gutxiatu igandeko oilo salda, begi larriaren piper gorri. Berden Frantzian eta Canada'ko frantsesek bezain ahaide urbilak gira. Urte on ¡Biarnes ahaideak; urte on! Biarnes adixkideak!... Pau'e, euskaldunentzat bizitegi urbilagoa, gozagoa ezenez eta Parise eta California. Erroz erro azitzen da akazia arbolak; berdin lantegiak. Pautetik bei ditazke Maule, Donapaleu, Hazparnerat...

On litzake beraz, euskaldunek begi onez ikus ditzaten biarnesen kalitateak eta ez txoilik izalaz. Gauza bera erran dezakegu RIOJA egoaldeko probintziatzen eta Nafarro eta Araba-erriko lokarritzen.

INDUSTRIAREN ESKASIA

Maiz arrankura daude Iparraldeko gure anaiak, arrazoinakin, hango eskualde gastez husten ari dirala eta herriak, lantegien faltan. Eskasia eta hutsune hau, Parisen bazar eta, turismoari diru laguntza geiago ematen diotela, ezen ez lantegiak altxatzeko. Eztakigu (eta ez dagokigu) horko legeak nola dauden lantegi berriari buruz. Dakiguna da, ehunka erdaldun, egoaldetik ere, badabilzala Donibane-Baiona aldeko lantegietara.

Euskaldun gasteak haatik, Parisera edo Californiara naiago lantegi berriak altxatzen balira Ipar Euskalherrian, soldata gutziagarriak eto izanen euskaldunentzat, aia erdaldunak merkeago ekarazazko nagusiek?

Hala ere, Egoaldeko enpresario zenbaitetik aitra belezate etxekideak Euskal iparraldean, Barcelona eta Rosellon-en artean gertatu den bezala, zerbait on ekar lezakete.

ALSAZIARAKO INDUSTRIA

«ALSAZIARAKO partean, dioSoeigle idazleak, SIEMENS A.G. aleman lantegi ikaragarriak, bere etxe-kide bat erakiti du HAGENAUI Alsaiziarako hirian. SIEMENS enpresa aipatu horrek 300 mila langile baditu munduan barretuak, elektrikoa tresneria aundiak egiten eta sartzen Erresuma gutzitan. Alsaiziarako hirian 300 lantokietan idekia izan da asteiko; horren berri dutenek diote, laster 1.500 tokiataraino edatuko dela lantegi hori.

Nehurtzeko eta prezisoneko tresnak egiten asiko omen da, erresuma gutzitan sararazteko. Batzuen ustes, Frantziako beste lantegietan eskuz esku sartzea omen da, SIEMENS horren nagusien xedea.

HAGENAUI-ko lantoki horietan 1.000 libera (franko) irapazten al badira hilabetean, Rhin ibaiaren bestealdean dauden SIEMENS lantegietan, 1.600 liberataraino altxatzen baita soldata, pentsatzeko da Alsaiziarako langile bat fite mail hortara igan daikela. Europa bateratu horri erne beha daukela SIEMENS-eko nagusiak, ezta dudarik. Hortaz, HERRIA astekarlan aipatu idazleak dion bezala:

«Noiz bada noiz, Bilboko lantegietan egiten ote dute erro, Miarrizteko, Balonako, Hazparneko, lantegiz larrutu erremuetan...? Mugak, iragan gizaizdien gerla-orotzapenak dira...? Tenore da Industriak garbi ditzan, Alemaniarako SIEMENS sartu da Alsaizian. Noiz baldinba, Bizkaitako (edo Gipuzkoako) sartuko dira Lapurdin, Iruñekoak Baxenabarran...? Iduri du Baiona, Iruñe eta Donostiako Komerzioko Ganbarak ari dirala elkarren artean mintzaten.

A. APAT-ETXEBARNE

